



Maite González
Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

| | |
|-----------------------------------|----|
| Garazi Kamio | 3 |
| Sarrera | 3 |
| <i>Beste norbaiten zapatak</i> | |
| • Kokapena | 4 |
| • «Argazkia» | 5 |
| • «Nessun Dorma» | 6 |
| • «Panenka» | 7 |
| • «Matematika» | 8 |
| • «Long journey home» | 9 |
| • «325» | 9 |
| • «Beste norbaiten zapatak» | 10 |
| • «Gerizpeko panpinak» | 11 |
| • Egituraketa | 12 |
| • Pertsonaiak | 13 |
| • Baliabideak | 15 |
| • Iritzia | 17 |
| | |
| Bibliografia - Webgrafia | 19 |

Garazi Kamio

Garazi Kamio Anduaga Andoainen, Gipuzkoan, jaio zen 1979ko irailaren 21ean. Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziaduna da, eta arlo horretan egin du lan ETBko Sautrela telebista saioko erredaktore gisa. Baina, Sautrelaren itxieraren ondorioz eta sektorearen egoera txarra zela eta maistra ikasketak egin eta irakasletzan diplomaduna da. Egun, Andoaingo irakasle da, baita euskal idazlea ere.



Literatura plazara iritsi berria den kazetaria da. Literatura lehiaketak eta bekak egon bazirela bazekien, baina sekula ez zuen aurkezteko denborarik izan. Azkenean, 2011an, *Gerizpeko panpinak* proiektua aurkeztu eta Beasaineko Udalak eta CAF enpresak antolatutako Igartza Saria irabazi zuen. Beka horri esker, urtebete beranduago, *Beste norbaiten zapatak* bere lehenengo liburua aurkeztu zuen, zortzi ipuinen bilduma dena. Bi ipuin baino ez ziren joan proiektuko lagin bezala (*Panenka* eta *Nessun Dorma*), eta hortik aurrera etorri ziren besteak. Hasieran zuen izenburua aldatu zion, baina lehenengo hura gogoratze aldera, ipuin bati jarri zion izenburutzat. Geroago, 2013an, Ondarroako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatzen duten XIII. Agustín Zubikarai nobela-beka eskuratu zuen, *Orube abandonatuak* egitasmoarekin. Sariari esker, 2014an *Orube abandonatuak* liburua argitaratu zuen, bere lehen eleberria.

Ipuinak irakurtzea izugarri gustatzen zaio. Eider Rodriguez (Gipuzkoa 1977) euskal idazlea, bere irakaslea izan zena, oso ipuingile ona iruditzen zaio. Poesiazalea ere bada, eta arlo horretan hiru izen ditu esateko: Joseba Sarrionandia, Castillo Suarez eta Leire Bilbao. Hala ere, poesia idazteko gaitasunik ez duela ziurtatzen du, ezta tentaziorik ere. Nahiago du kanpotik begira dagoela poesia irakurtzea, idazten hasi baino. Egun ezagunak diren idazleek Igartza Saria jaso zutela badakien arren, bertigoa ematen dio, sariaren aldetik, euren maila berean egoteak. Haien herena izatea lortzen badu, pozik egoteko modukoa dela uste du. Beraz, idazten jarraitzeko asmoa dauka. Izan ere, sariak ireki diote atea, eta orain, ate hori zabalik mantentzen saiatu nahi da.

Sarrera

Beste norbaiten zapatak Garazi Kamiok idatzitako ipuin bilduma da. 2012ko azaroaren lehen argitaratu zen, eta oraingoz plazaratutako edizio bakarra da. Kamiok Castillo Suarezren poema batetik hartu du izenburua libururako: *Ez dakit beste norbaiten zapatak jantzi / dituzun noizbait. / Maitale desleial batenak, esate baterako, / harengana*

hurbilduko zintuztelakoan. Poema hori, hain zuzen ere, liburuaren hasieran jasotako aipamen gisa agertzen da.

Liburuan zortzi ipuin ageri dira, denak desberdinak, batak bestearekin zerikusirik ez dutenak. Bakoitza metafora bat da, eta guztietan deserosoa den zerbait agertzen da, batzuetan momentuan ageri dena, besteetan iraganetik datorrena. Ezaugarri hori da ipuin guztiek komunean daukaten bakarra. Beilatokira doan radar-konpontzailea, jubilatuta operazalea, arazoak dituen bikotea, autobusean bidai luze bat egin behar duen lagun pare, alaba gaixoa ospitalera eraman behar izan duen ama, bizilagunari mandatu bat eskatzen dion agurea, ikasle garaiko pasadizoak aztoratzen duen gurasoa, alaba futbolzalea duen emakumea ... eguneroko bizitzatik ateratako elementuak agertzen dira. Beraz, gaurko bizimoduaren erretratua den liburua da. Kamiok eguneroko gauzak kontatu dizkigu, denok bizi dezakegunak eta egunero ikusten ditugunak, baina bitxitasun puntu bat ere dutenak. Eta hori da, hain zuzen ere, kontakizun gehienek halako aho-gustu gazi-gozo bat uztearen arrazoa. Ez dira istorio tragikoak, baina bizitzaren erdipurdikeria antzeko batean mugitzen direla esan daiteke.

Garazi Kamiok ondo eraikitako ipuinak sortu ditu, planteamendu eta pertsonaia originalekin, ustekabeko erreakzio eta amaierak eskaintzen dituztenak. Zenbait ipuinetan leku eta espazio arruntak agertzen dira, baita guk egunero erabiltzen eta aipatzen ditugun aparatuak eta gaiak ere. Izan ere, Euskal Herriko gaur eguneko giroan kokatu ditu bere kontakizunak, egun edozeini gerta dakizkiokeen istorioak direla adierazi nahian. Lehenengo, bigarren, hirugarren pertsonak ematen dituen distantzia desberdinetatik modu linealean antolatu ditu kontakizunak Kamiok.

“Beti esan dut norberak bere burua pertsona arrunt moduan ikusten duela; eta noski, inguruko zenbait dituela arrotz, edo normaltasunetik kanpo baleude bezala. Baina hori ezin daiteke alderantziz izan? Beharbada gu geu gara arraroak besteen begi arruntetan”. Garazi Kamioren hitzak dira, liburua idaztera bultzatu zuen gogoeta azalduz. Horren harira, eguneroko kontuak, ustez txikikeriak direnak, hartu ditu mintzagai; baina ez horiek epaitzeko helburuarekin, baizik eta behatzailearen papera egitekoarekin. Pertsonen erdipurdikerietan erreparatzen du, baina bere miserietan gozatu gabe.

Kokapena

Espazioari dagokionez, istorio bakoitzaren araberakoa da; baina guztiak dira irakurlearentzat ohikoak diren lekuak. Ziur irakurle gehienek sentituko dutela horietako, gutxienez, batekiko atxikimendua. Hala ere, idazlea Gipuzkoakoa izanik, bere herria erreferentzia gisa hartu du, eta liburuan aipatzen ez bada ere, ziur aski protagonista guztiak Gipuzkoakoak dira eta han bizi dira. Gainera, pertsonaia guztiak euskaraz hitz egiten dutenez gero, euskaldunak direla esan daiteke.

Lehenengo ipuina, *Argazkia*, Gipuzkoa inguruan gertatzen da. Izan ere Gipuzkoatik pasatzen diren errepideak aipatzen dira: A-8, A-15, N-I eta GI-131. Istorioa beilatoki batean eta ehorztetxe batean gertatzen da nagusiki; eta ondorioztatu daiteke biak Gipuzkoan daudela, errepideak bezala. Bigarrena, *Nessun Dorma*, alzheimerra duen gizon baten eta haren emaztearen etxeko korridorean gertatzen da. Ez da aipatzen etxea non dagoen, baina ez du garrantzi handirik, pertsonaiak ez baitira korridore horretatik ateratzen. Hirugarrena, *Panenka*, Anoetan gertatzen da, Gipuzkoako hirian. Hala ere, lekua ez du garrantzi handirik, pentsamenduak adierazten baitira ekintzak baino gehiago. Protagonistaren gurasoen etxea, haren alabaren eskola, eta haren etxea aipatzen dira. Betis eta Real Madrid futbol taldeak ere aipatzen dira, baina hori ez du esan nahi Sevilla edo Madrilen daudela, Euskal herrian ere talde horiekiko zaletasuna baitago. Laugarrena, *Matematika*, Durangoko azokan gertatzen da batez ere, baita Durangotik gertu dagoen Itziarko gasolindegian ere. Bosgarrena, *Long journey home*, autobus batean gertatzen da; protagonistak autobusean bidai luze bat egiten baitaude, Gipuzkoatik Madrilera hain zuzen ere. Bidaia N-I errepidean zehar egiten dute, Burgos zeharkatzen, beste lurralde batzuen artean, eta hainbat lekutan geldialdiak egiten, Boceguillaseko restopean adibidez. Protagonisten helburua Soto del Real presondegia da. Seigarrena, *325*, ospitale batean gertatzen da, batez ere, ospitale horren 325. gelan. Zazpigarrenaren, *Beste norbaiten zapatak*-ren, lehenengo zatia, protagonistaren etxean gertatzen da, eta bigarrena, Gasteizen, beste pertsonai baten etxean. Eta azkenik, zortzigarrena, *Gerizpeko panpinak*, Madrilen gertatzen da, hotel garesti batean. Izan ere, pertsonaiak, euskaldunak direnak, hiri horretara joan dira egun batzuk igarotzera.

Garaiari dagokionez, argi eta garbi geratzen da gaur eguneko istorioak direla *Beste norbaiten zapatak* liburua osatzen duten ipuinak. Gaurkotasun eztabaidaezina sumatzen da, eta hori frogatzeko hainbat adibide aipa daitezke: Audi A6, e-maila, internet, Mikel Urdangarin abeslari euskalduna, Citroën, Alexandra Stan eta Lady Gaga abeslari famatuak, “Los 40 Principales”, Wikipedia, telefonoa, Google interneteko bilatzailea, “El corte Inglés”, eta beste hainbat aipamen. Hala ere, ez dira mota horretako aipamenak gaurkotasun sentsazioa sortzen duten bakarrak. Gizartea antolatzeko modua, pertsonaien pentsatzeko eta jokatzeko era, izaten dituzten elkarrizketak eta gertatzen diren egoerak, erabiltzen dituzten tresnak ... dena baturik, gaurko bizimoduaren erretratua osatzen dute. Hori zen, hain zuzen ere, Garazi Kamioren helburua: eguneroko gauzak kontatzea, denok bizi edo ikusi ditzakegunak. Ipuin batean, *Nessun Dorman*, orain dela ehun urteko pentsatzeko eraren erretratua egiten da. Emakumeen gaineko gizonen nagusitasuna ageri da, gaur egun, kasu gehienetan, desagertu dena. Istorio horren bidez, oraindik egoera hori sufritzen duten emakumeak existitzen direla salatu nahi du Kamiok.

Beste norbaiten zapatak

«Argazkia»

Gaia

Heriotzarenganako beldurra, eta estetikak gizartean duen garrantzia; estetikaren pasioa hilkutxako zenduarenaz absurdoraino eramana.

Argumentua

Julen bere lankidearen amaren hilbeilara doa, gogoz kontra bada ere, ez baititu kontu horiek gustuko, eta egonezinik uzten du horrek. Izan ere, ez zaio batere ondo iruditzen hildako pertsonak makillatzen dituzten modua. Hori dela eta, hilkutxa batean sartuta argazki bat egin diezaioten saiatuko da, hiltzerakoan hori erabili dezaten, hilda eta hain makillaje txarrarekin egingo diotena erabili ordez.

Gertakizun nagusiak

- Julenek, errepideetako radarren mantentzearen arduraduna, lana amaitzean, Manuelen (bere lankidearen) amaren beilatokira doa, gogoz kontra, ez baititu kontu horiek gustuko. Hor dagoela, hildakoaren gorpua ikusten du, eta makillatuegia begitantzen zaio, ez zaio haren itxura gustatzen.
- Gauez, etxean, Google-n lortutako argazki batzuk bere web-orrian eskegitzen ditu, bidaiatzen duenaren plantak egiteko asmoz.
- Ohera sartzerakoan, Manuelen amaren hilbeilak egonezinik utzi duela konturatzen da.
- Hurrengo egunean, Manuelen amaren hiletara doa. Bertan ehorztetxeko langile bati ehorztetxekoekin hitz egin nahi duela esan, eta honek nahi duenean joan daitekeela erantzuten dio.
- Hurrengo egunean, gogokoen dituen arropak jantzi, ile-apaindegira joan, eta ondoren, ehorztetxera abiatzen da. Bertan, gorpuk txukuntzen dituenarekin hitz egin, hilkutxak ikusteko eskatu eta baten barruan sartuta argazki bat atera nahi duela esaten dio. Izan ere, hiltzerakoan, ez du Manuelen amarena bezalako aurpegi artifizialik nahi. Horregatik nahi du argazkia.

«Nessun Dorma»

Gaia

Lehenengo emakumearen egoera, gizonak emakumearen gainean nagusitasuna zueneko garaian; iruzurra eta gezurra; eta alzheimerra.

Argumentua

Juan bere senarrarekin igarotako bizitza luzea frustrazio bihurtu zaio Mariari, eta lurrean etzanik biak, mugitu ezean, oraindik ere gizonak bere baldintzak argi jartzen dizkio bizikide emakumezkoari. Azken honek, bere senarrarekin ezkontzeaz damaturik egon arren, bere zerbitzura egoten jarraituko du.

Gertakizun nagusiak

- Senarra alzheimerduna, Juan, eta emazte otseina, Maria, korridorearen erdian erorita daude, lehenengoak oroimena hautsia eta bigarrenak aldaka.
- Egoera horretan daudela, lurretik altxatu ezinean, Juanek ea Turandot opera ikusi nahi duen galdetzen dio Mariari.
- Galdera horrek Juanekin bizitako guztia gogorarazten dio Mariari. Emakumeak gogoeta egiten du bere senarraren ondoan bizitakoaz: Juanek Turandot operarekin limurtu zuen neska gazteak zirenean, eta ezkondu eta hogeitaz urtera, esandako guztia gezurra zela aitortu zion. Baina berandu zen atzera egiteko, eta bizitza osoa igaro behar izan zuen emakumeak Juanen neskame gisa.
- Mariak berarekin ezkontzeaz damututa dagoela eta dibortzioa eskatuko lukeela esaten dio Juani. Baina honek, gaixorik egonda ere, bere bizikideak esandakoaz barre egin eta bere baldintzak argi jartzen dizkio. Mariak, bere aldetik, haren zerbitzura egoten jarraitzen du.

«Panenka»

Gaia

Genero desberdintasunak, neska edo mutila izateagatik gustu jakin batzuk izan behar direnaren ustea; futbolak gizaratean duen garrantzia; belaunaldiak pasa ahala umeak hezteko moduak izan duen aldaketa; eta senar-emazte harremanen arteko gatazkak.

Argumentua

Futbola gorroto duen protagonistari alaba futbol zale porrokatua atera zaio, Betis zalea. Gainera, aitona-amonek egongelan jolasean aritzeko debekuak kentzearen ondorioz, alabak bere baloiarekin Bohemiako kristalezko ontzia hautsi du. Aitaren futbol zaletasuna eta senarraren isiltasuna izugarri haserretuko dute protagonista, eta etsita agertuko zaigu, alabari futbolarekiko zaletasun hori kendu nahian.

Gertakizun nagusiak

- Belaunaldi berriarekin, protagonistaren gurasoek egongelan jolasean aritzeko debekuak haustearen ondorioz, Iratik, alabak, bere baloiarekin Bohemiako kristalezko ontzia hausten du.
- Horren harira, debeku guztiak aktibatuak zeudeneko iraganaz gogoeta egiten du amak.
- Horrez gain, futbola gorroto duen protagonistari alaba futbol zale porrokatua atera zaio, Betis zalea. Gainera, Martin, senarra, lasaiegia da eta ez du ezer ez egiten alabaren zaletasunaren aurrean.
- Hori gutxi ez bada, datorren astean Betis futbol taldea herrira etorriko da, eta protagonistaren aitak Irati eramango du partida ikustera. Izan ere, aita futbol zalea ere bada.
- Horren ondorioz, protagonista haserretu egiten da, eta alabaren zaletasunari amaiera emateko edozer egiteko prest dago.

«Matematika»

Gaia

Bikoteen arteko tira-birak, gezurra, eta bizitzaren ikuspegi berezia, matematika aplikatuz lortua.

Argumentua

Giza harremanak matematika-ekuazioen arabera ikusten dituen bikote gazteak, Xabier eta Nerea, bere etorkizuna imajinatzen du, eta bikote adindu aspertua baino ez du irudikatzen. Lagunen artean ondo geratzeko egindako ahaleginak eta bere arteko tira-birak, adinekoak izatera heldu baino lehen itotzea eragingo dute.

Gertakizun nagusiak

- Xabier okindegira joan ondoren etxera itzultzen da, eta bertan Nerea, bere bikotea, dago.
- Xabier Abraham Maslow psikologoaren piramidearekin akordatzen da (pertsonek beharrezkoak mailatan sailkatzen dituen piramideak, goiko mailan autoerrealizazioa egonik), eta horren harira beste gogoeta batzuk datozkio, Nerearekin konpartitzen dituenak. Baina ez dira iritzi berekoak.
- Ondoren, Durangoko azokara joateko kotxean daudela, bikote adindu bat ikusten dute, haien artean hitzik trukatu gabe dagoena, eta etorkizunean haiek ere horrelakoak izango ote diren galdetzen dira. Horretan ere ez datoz bat.
- Azokara ailegatzean Nerearen bi lagunekin elkartzen dira, eta bikote perfektuaren plantak egiten dituzte.
- Azokan ibili ondoren, kotxera sartzen dira berriz ere, etxeko bidean. Orduan hasten dira eztabaidatzen, Xabierrek Nereari lagunak aurrean esandako gezurrak leporatzen dizkiolarik. Nereak, egiatan Xabier ez duela maite aitortzen dio, baina berarekin dagoela eroso bizi delako ere.
- Gasolindegira batean gelditzen dira, eta Nereak autotik jaitsi eta denda aldera abiatzen da. Xabierrek, orduan, Nereak esandakoaren ondorioz minduta, berekoia dela pentsatuz, emakumea kotxearekin kolpatu eta bera bakarrik etxeko bidea hartzen du.

«Long journey home»

Gaia

Presoek bisita, eta horretarako egin beharreko bidai luzeak, pazientzia eskatzen dutenak.

Argumentua

Bi lagunak, Sonia eta Maiderrek, Euskal presoak ikusteko, bidai luze eta aspergarria egiten dute autobusez, eta joatekoa bezain luze eta aspergarri antzematen dute bueltakoa, presoaren askapenerakoa izanik ere oraino honetan.

Gertakizun nagusiak

- Sonia eta Maider autobusean daude, bidai luze bat egiten, beste askotan egin duten moduan, bere lagunari kartzelara bisita egiteko.
- Hainbat gaien inguruan hitz egiten dute, adibidez Soto del Real presondegiaren hasierako izenaren edo bere laguna Eukene presoaren inguruan.
- Jateko eten bat egiten du autobusak.

- Azkenean, Soto de Real presondegira ailegatzen dira, baina oraindik zenbait ordu itxaron beharko dituzte.
- Oraingoa, presoaren askapenerako bidaia izan da. Hala ere, joatekoa bezain luze eta aspergarri antzematen da bueltakoa.

«325»

Gaia

Gaixotasunenganako beldurra eta nork bere burua gainerakoak baino jakintsuagotzat edukitzeak eragin ditzakeen zuhurtziagabekeriak.

Argumentua

Protagonistak, Anak, bere alaba gaixoa, Aiora, ospitalera eraman behar izan du, zer daukan ez dakiela. Urduri dago eta medikuak presionatzen ditu gaixotasuna lehen baino lehen diagnostikatu eta harentzako erremedioa bila dezaten. Azkenean, amak berak umeari zer gertatzen zaion jakin aurretik, Aiora medikatuko du.

Gertakizun nagusiak

- Zeladoreak Ana ospitaleko korridoreetan zehar eramaten du. Pasabide batean ohatila baten gainean gorpu hil bat ikusten du, izugarri asaldatzen duena.
- 325. gelara ailegatzen da. Bertan Gladysz eta bere alaba Abigail daude. Ana eta bere alaba Aioraren ospitaleko gelakideak dira, Anak oso gustuko ez dituenak, Gladys gehiegi hitz egiten baitu.
- Aiora gaixo dago eta medikuek zer daukan ez dakitenez, gaua ospitalean pasatzen dute.
- Hurrengo egunean, ospitaleko irakaslea gelara joaten da, umeak berarekin joan daitezen. Baina Aiora txarto dagoenez amarekin gelan geratzen da.
- Medikuek agertzen direnean, umeari zenbait proba egitea erabakitzen dute. Ana oso urduri dago eta medikuak presionatzen ditu bere alabak zer duen lehen bai-lehen aurki dezaten. Gladysen Ana lasai egon dadin esfortzuak egiten ditu, baina gehiegi hitz egiten du eta Anari astuna egiten zaio.
- Abigail eta Gladysen gelakideak agurtu eta etxera joaten dira, neskari alta eman baitiote.
- Ana eta Aiora, aldiz, ospitalean beste gau bat igaro beharko dute. Anak Aiorak zer daukan ez dakien arren, alaba medikatzen du, berak medikuek baino hobeto zainduko duelakoan.

«Beste norbaiten zapatak»

Gaia

Langabezia, eta frankismo garaietatik hona datorren oroimen historikoa.

Argumentua

Langabezian dagoen eta era programatuan bizi behar duen protagonistaren, Edortaren, zerrenda baten egitasmo bat agure batek eskatutako mandatu bat betetzea da. Mandatua egitean frankismo garaietatik hona datorren memoria historiko baten freskatze lanean ikusten du bere burua. Baina azkenean, freskatu ez, galdu beharreko memoriarekin egingo du topo.

Gertakizun nagusiak

- Edorta langabezian geratu berri da, eta orain, debora duela aprobetxatuz, egitasmoen zerrenda hartu eta apuntatutakoa betetzen joango da
- Lehenengo egitasmoa gerriko berria erostea da. Erraza iruditu eta bigarrenari erreparatu dio: bizilagun agure batek eskatutako mesedea. Mesedea agureak emandako gutuna bere lagun bati ematean datza.
- Agurearen etxera joatea erabakitzen du, bere laguna non bizi den galdetzeko. Baina bera bizi zen etxean bikote gazte bat aurkitzen du, eta hauek gizona hil zela esaten diote.
- Beraz, lagun horren izena, Fausto Igartua, interneten sartu eta bere telefono zenbakia aurkitzen du. *Gasteizko Alderdi Komunistaren omenaldian* parte hartu zuela ere aurkitzen du. Telefonoari deitu eta Nekanez erantzuten dio, Faustoren zaintzailea. Berarekin geratzen da hurrengo egunean beraien etxera joateko.
- Behin bere etxean dagoela Nekanez gutunean dagoena Faustori ozenki irakurtzeko esaten dio, berak grabatzen duen bitartean, bideoa hurrengo omenaldian erabili ahal izateko. Edortak emakumeak eskatutakoa egiten du.
- Baina gutunean Faustori kalte egin ahal dion informazioa dago. Ondorioz, Nekanez bideoa ezabatzea eta irakurritakoa ahaztea onena dela esaten du. Edorta ez dago horrekin ados, baina emakumeak ez dio kexatzeko tarterik uzten, eta etxetik botatzen du gizona. Fausto, bere aldetik, ez du hitzik esaten.

«Gerizpeko panpinak»

Gaia

Ohe arrotzaren sindromea, eta gaztetan hartzen ditugun bide okerrak denborarekin gogoratzean eragiten dizkiguten lotsa eta ezinegona.

Argumentua

Protagonista Madrilera doa bere alabarekin, eta bertako kaleetatik paseatzen dagoela aspaldiko laguna ikusten du. Horrek 30 urte lehenagoko ikasle garaiko pasadizoak gogorarazten dizkio, erabat aztoratzen dituena.

Gertakizun nagusiak

- Protagonista Madrilera joan da bere alabarekin, eta hotel batean daude gau bat igarotzeko.
- Ohean daudela, protagonistak ezin du lorik egin, Ohe Arrotzaren Sindromea dela eta, hau da, asmatu berri duen sindromea dela eta.
- Orduan, Madriletik paseatzen zegoela, Blanca, 30 urte lehenagoko pisukidea, ikusi duela gogoratzen du, eta berarekin bizi zela bizi zituen pasadizoak gogora etortzen zaizkio.
- Hasieran ez zuten asko elkar ikusten, protagonista ez baitzen ia unibertsitatetik eta bere logelatik ateratzen. Baina egun batean Blancak dirua irabazteko prostituitzen zela aitortu eta protagonistari gauza bere egitea proposatu zion.
- Horren inguruan hausnartu eta gero, Blancaren proposamenari baiezkua eman zion. Horrela, gau batean Blancarekin joan eta gai horren inguruko gauzak nola funtzionatzen ziren erakutsi zion. Lehen bezeroaren ondotik beste zenbait etorri ziren.
- Ikasturtea amaitzearekin batera etxera itzuli zen eta denborarekin, Blancarekin zeukan harremana galdu eta ez zuten elkar berriro ikusi, atzo berriz topatu zuen arte.
- Blancaren inguruko oroitzapen horiek asaldatu egiten dute gizona, eta ohetik jaikitzen da nazka eta pena sentituz.

Egituraketa

Liburu honek zortzi ipuin jasotzen ditu, elkarren artean guztiz desberdinak direnak, eta elkarren artean loturarik ez dutenak. Garazi Kamiok ipuin gehiago idatzi zituen, baina zortzi baino ez zituen argitaratu, batzuk liburutik kanpo geratu zirelarik. “*Bide baten inguruan dabiltzanak aukeratu ditut; eta biribiltasun batetik kanpo geratzen zirenak tiradera batean sartu. Azkenean bilduma bat osatu behar da, eta bilduma horrek koherentea izan behar du. Eta batzuk ez zuten bide berdina jarraitzen*” dio Kamiok liburua osatuko zuten ipuinak aukeratzearren arrazoiak azaltzeko. Beraz, badira liburu osoan, ipuin guztietan, errepikatzen diren ezaugarriak, irakurlearenganako gertutasuna, besteak beste. Liburuaren titulua, *Beste norbaiten zapatak*, ipuin baten titulua ere bada. Gainerako ipuinak *Argazkia*, *Nessun Dorma*, *Panenka*, *Matematika*, *Long journey home*, 325 eta *Gerizpeko Panpinak* dira.

Ipuinen egituraketa lineala da. Beste era batera esanda, istorio guztietan zehar egitura kronologikoa erabiltzen da, gertakizunak gertatzen diren ordenan kontatzen dira. Hala ere, askotan *Flash Back* modukoa da, protagonistei burura etortzen zaizkien oroitzapenak kontatzen direlako. Kasu horietan, nahiz eta kontakizuna orainaldian egina egon, iragana erabiltzen du idazleak. Batzuetan *Flash Back* horiek dira kontakizunaren muina, *Nessun Dorma* eta *Gerizpeko Panpinak* ipuinetan batez ere.

Ipuin bakoitza ataletan banatuta dago. Atal bakoitza bereizteko, espazio handiago bat uzten du idazleak paragrafoen artean eta letra larriz idazten du atal berriaren lehenengo hitza.

Aipatu beharra dago Garazi Kamiok Castillo Suarez, Eider Rodriguez eta Leire Bilbaoren aipamenak jaso dituela liburuan. Hirurak dira Kamiok gogoko dituen autoreak, eta horregatik erabili ditu, baita liburuarekin duten loturagatik ere. Castilloren kasuan, bere poematik hartu zuen liburuaren tesia, baita titulua ere, eta horregatik, bera aipatzea ezinbestekoa zitzaion.

Pertsonaiak

Era askotakoak dira Garazi Kamioren ipuinetako pertsonaiak, sexuaz, adinez, bizibidez eta kezka. Batzuetan sinpatia eragiten dute, beste batzuetan antipatikoak gertatzen dira, azken batean, erdipurdiko pertsonak direlako. Oso sinesgarriak dira, arruntak direlako. Kamiok gaur egungo pertsonaiak, ustez gu bezain normalak direnak, gorpuztu ditu istorioetan. Hori dela eta, batzuetan irakurleak bere burua jarri dezake pertsonaia baten azalean, eta berarekin identifikatuta sentitu daiteke. Kamioren harremanen esparrua zabala da: lankideak, familia, bikotea ... ageri dira. Bidegurutze batean dauden pertsonaiak asmatu ditu idazleak. Hona hemen ipuin bakoitzeko protagonistak.

Julen. Errepideetako radarren mantenimenduan egiten du lan, Manuelekin batera. Ez ditu sare sozialetan lagun mordorik, eta kalean ere ez du harreman handirik lagunak izandakoeekin. Bidaiatzea ez du gehiegi maite, baina bere adinekoen artean hura dela gauzarik arruntena badakienez, Google-n lortutako irudiekin karpetak eskegitzen ditu sarean, besteen bidea ez galtzeko. Heriotzak ezinegona sorrarazten du harengan, baina ez du pena berezirik sentitzen hildako pertsonenganako edo hildakoen familienganako. Aldiz, kontu horietatik urruntzea nahiago du. Hala ere, ez zaio batere ondo iruditzen hildako pertsonak makillatzen dituzten modua. Eta horrek egonezinik usten du ere.

Maria. Maria adineko emakume bat da, alzheimerra duen senarra duena, Juan izenekoa. Ezkondu zirenean Juan ederra, argiaren hiriaren parekoa iruditzen zitzaion, baina denborarekin irudi hori iluntzen joan zen, eta senarraren purrustadak entzun behar izan ditu egunak joan eta eguna etorri. Berrogeita hamabost urtez haren esanetara egon da, eta orain, senarra gaixo duela ere, neskametzat du bere burua. Gizonari burua nahasten hasi zitzaionetik erantzun falta sumatzen du. Lehen berehala aurkitzen zuen erantzun bat, baina orain pazientzia ere agortzen ari zaio. Hala ere, inoiz ez dio erantzun txarrik eman gizonari, hobe isilik egotea, irakatsi zioten bezala. Dena dela, orain, berrogeita hamabost urte geroago, bere senarrarekin ezkondu izanaz damu da, baina, hala ere, bere zerbitzura egoten jarraitzen du.

Protagonista (Ez da izenik aipatzen, 2. pertsonan kontatuta baitago)

Emakume ezkondua da, alaba bat duena, Irati izenekoa. Futbola gorrotatzen du, eta mutilen kontua dela iruditzen zaio. Gauzak azkarregi egiten ditu, behar adina pentsatu gabe. Bere senarra, Martin, ez du gustuko, futbolarekiko gorrotoak soilik elkartzen zituen berarekin ezkontzea erabaki zuenean. Martinek laguntzen eta entzuten ez diola iruditzen zaio. Bere alaba futbolzale porrokatua da, eta zaletasun hori deuseztatu nahi du nola edo hala. Bere senarraren isiltasunak eta bere alabaren zaletasun horrek izugarri haserretzen dute, eta nerabe zenean bezain hauskorra dela sentitzen du.

Xabier. Gizon gazte bat da, bere bikotearekin, Nerearekin, bizi dena. Igandero *Berria* erosten du. Autoak gustatzen zaizkio, baina ezin du gustuko duena erosi, dirurik ez duelako. Traketsa da zenbakiekin, Nerea ez bezala. Nerea eta Xabier gutxitan datoz bat haien iritziarekin, eta hori dela eta, askotan eztabaidatzen dute. Baina, normalean, eztabaidetan Nereari erantzun beharrean, isilik geratzen da. Nahiz eta ondo ez konpondu, bikote-harremana inoiz baino hobeto doan plantak egin ohi dute lagunen aurrean.

Sonia eta Mainer. Autobusean bidai luzea egin behar duten lagun parek dira. Askotan egin dute bidai hori, Gipuzkoatik Madrilera, bere lagun bati, Eukeneri, Sodo del Real presondegian bisita egiteko.

Ana. Alaba larrialdietara eraman behar izan duen emakumea da. Medikuntza betidanik gustatu zaio, eta Interneten irakurtzen ditu *Salud hoy* eta antzeko aldizkariak. Jendaurrean negar egiteak lotsagarria iruditu izan zaio beti, baina orain, alaba gaixorik daukala, eta zer daukan ez dakielarik, urduri dago, eta negar egitea saihestezina egiten

zaio. Medikuek presionatzen ditu bere alaba zer daukan aurkitu dezaten. Hala ere, ez da eraman handiko emakumea, eta bere alaba medikuek baino hobeto zaindu dezakeela uste duenez, berak medikatzen du, zer daukan jakin aurretik.

Edorta. Arduratsua, adeitsua, heziketa onekoa, eta hitzeko gizona da, gainerakoek kontuetan sartzea gustuko ez duena. Lehen lanak osten zizkion orduak eta egunak, eta etxetik kanpo denboraldi luzeak pasatzen zituen. Horregatik, lanez lepo zebilenean, egin beharreko kontuekin zerrenda bat egin ohi zuen. Orain, langabezian dagoela, zerrenda hartu eta apuntatutako egitasmo guztiak betetzeko helburua du.

Protagonista (Ez da izenik aipatzen, 1. pertsonan kontatuta baitago)

Donostiatik urrun ez dagoen herri bateko gizona da, Izaro izeneko alaba bat duena. Zuzenbide ikasketak egina da. Zaila egiten zaio ezezaguna den ohean loak hartzea. Horri Ohe Arrotzaren Sindromea deitzen dio, berak asmatutako sindromea, hain zuzen ere. Ikasten zegoela, Madrilen igaro zuen urte bat, Blanca izeneko neska batekin pisua konpartitzen zuela. Blancaren inguruan mugitzen diren oroitzapenak burura datozkionean aztoratu egiten da, garai horretan egindakoaz damutzen delako. 30 urte lehenagoko ikasle garaiko pasadizo horiek ez gogoratzea nahiago du.

Protagonista hauez gain, badira pertsonaia gehiago ere. Hona hemen gainerakoak:

- Manuel: Julenen lankidea. Bere ama hil da.
- Juan: Mariaren senarra. Alzheimerra du. Azken hogeitun urte hauetan baldartzen joan da baina, azken hilabeteotan, bakarrik ibiltzeko ere ez da gai ia. Gaixorik egonda ere, argi uzten dio emazteari non dagoen bakoitzaren tokia eta ederki daki adarra jotzen.
- Irati: *Panenka* ipuinaren protagonistaren alaba. Futbola eta Betis taldea baino ez ditu buruan.
- Martin: *Panenka* ipuinaren protagonistaren senarra. Ez du futbola atsegin. Lasaiegia da; erabakiak lasaitasun handiegiarekin hartzen ditu.
- Nerea: Xabierren bikotea. Ez du inoiz autoenganako erakarpenik sentitu. Etxe ederra nahiago du. Zenbakiekin jolasten du beti, errentagarria denari erreparatzen dio. Bizitza matematika hutsa dela dio. Ederto pasatzen du bere lagunekin. Fetixistatzat du bere burua. Txikitatik gordetzen ditu gauzak, noizbait itzelezko balioa izango direlakoan. Ez du Xabier benetan maite, berarekin bizi da eroso bizi delako.
- Eukene: Sonia eta Mainerren laguna. Soto del Real presondegian dago preso.
- Aiora: Anaren alaba. Gaixo dago, zer daukan ez dakitela.
- Gladys: Ana eta Aioraren ospitaleko gelakideak da. Asko hitz egiten du. Ile tenkatua dauka, eta behin eta berriz orraztutako mototsa.
- Abigail: Gladysen alaba. Gaixorik dagoelako dago ospitalean, baina alta ematen diote.
- Ernesto Ormazabal: Edortaren bizilagun agurea zen. Hil aurretik gutun bat bere lagun bati ematea eskatu zion Edortari. Karlista zen, eta kartzelan egon zen arrazoi horregatik.

- Fausto Igartua: Ernesto Ormazabalen laguna da. Karlista izatetik komunista izatera aldatu zen. Orain *Gasteizko Alderdi Komunistaren* omenaldietan parte hartzen du.
- Nekane: Faustoren zaintzailea da.
- Blanca: *Gerizpeko Panpinak* ipuinaren protagonistaren aspaldiko pisukidea eta laguna da. Albacetekoa da. Sorbaldan tatuaje bat dauka. Gaztea zenean, oso polita zen, irribarre ederrekoa. Desfileetako modelo edo *Un, dos, tres* saioko azafata izan nahi zuen. Zuzena zen, itzulingururik gabekoa. Baina prostituzio munduan ibiltzen zen. Orain, aldiz, ilea nahastuta, aspaldi garbitu gabea eta arropa zikinak daramatza eta bakarrik hitz egiten du. Banku bateko kutzazainean egiten du lo, Madrileko Gran Vian.
- Izaro: *Gerizpeko Panpinak* ipuinaren protagonistaren alaba da.

Baliabideak

Lexikoa ez da bereziki zaila, ezta erabiltzen diren egiturak ere. Alde horretatik ulertzeko liburu erraza dela esan dateke. Idazleak estetikari eman dio garrantzia, ipuinak ez baitira era berdinean kontatzen. Kamiok pertsonaien deskribapen gutxi egiten ditu eta istorioa ulertzeko ezinbestekoak direnean baino ez ditu egiten. Izan ere, ekintzak garrantzi handiagoa dute, deskribapenak baino gehiago. Elkarrizketa urriak dira ere. Izan ere, pertsonaien gogoetak dira garrantzitsuagoak. Horregatik, pertsonaien sentimenduak eta burutapenak nabariak dira narrazioan.

Narratzaileari dagokionez, aldatuz doa ipuinez ipuin. *Argazkian*, 3. pertsonako narratzaile orojakilea erabiltzen du, eta kontaketa iraganean eginda dago: “*Okaztagarria iruditu zitzaion azalpen hura. Ostiral eta larunbat gauetan telebistan ikusten zituen saioak etorri zitzaizkion gogora*” (19. or.). *Nessun Droman*, 3. pertsonako narratzaile orojakilea erabiltzen du, istorioa orainaldian kontatuz: “*Damu da laguntza lehenago eskatu ez izanaz*” (38. or.). *Panenkan*, 2. pertsonako narratzaile orojakilea erabiltzen du, eta orainaldia: “*Oraingoan ere azkarregi ibili zarela iruditzen zaizu*”(50. or.). *Matematikan*, 3. pertsonako narratzaile orojakilea erabiltzen du, eta kontaketa iraganean eginda dago, “*Mutilak ez zekien zer pentsatu. Ez zion Nereari aspalditik halako esaldirik entzun*” (60. or.); baita ere *Long journey home*-n, “*Maiderek nahiago zuen N-Ieko paisaia beste era batera saihestu*” (70. or.); 325-n, “*Anak lasaitasun izpi bat sentitu zuen medikuak haurra abegitsu hartu zuelako*” (87. or.); eta *Beste norbaiten zapatak* ipuinean, “*Igogailuan behera zihoala, etxe hartan pasatakoa irentsi beharra zeukala iruditu zitzaion*” (105. or.). Azkenik, *Gerizpeko panpinak* ipuinean 1. pertsonako narratzailea erabiltzen du, istorioa orainaldian kontatuz: “*Badakit neure burua babesteko asmatu berri dudala sindrome hori*” (109. or.).

Maila semantikoko baliabideei dagokienez zenbait erabili ditu, hala nola, konparazioak eta pertsonifikazioak. Bestalde, esamoldeak ere non-nahi aurki ditzakegu. Batzuk aipatzearen:

KONPARAZIOA

«...senarra haur baten parekoa da.» (33. or.)

PERTSONIFIKAZIOA

«Juanek duela bi urte jaso zuen Alemaniako lagun horren bisita; Alzheimerrak ezustean egin zuen bizilekua haren buruan.» (32. or.)

ESAMOLDEAK

«...ez lioke Manueli deituko doluminak emateko.» (15. or.)

«...bostekoa eman eta *laguntzen dizut atsekabe*an bana esan zien ...» (17. or.)

«Hura ere, bere kordean egon zuan ia azken unera arte.» (19.or.)

«Gauak pasa zituen loak hartu ezinik gorpu hura begiz jo ondoren.» (21. or.)

«...begiak zabal-zabal eginda, kordea galdu zuen arte.» (22. or.)

«-Hor ere men egin nien besteek esandakoari.» (37. or.)

«—A zer-nolako begiratua bota dizun Urdangarinek!» (63. or.)

Horrez gain, aipagarria den beste baliabide bat erabiltzen du Garazi Kamiok. Batzuetan, pertsonaien arteko elkarriketetan, euskara batua erabili beharrean, hika erabiltzen du. Hona hemen pasarte bat:

«—Ezin nian gutxiago egin –bere burua zurikeriatan sentitu zuen Julenek–. Zer moduz hago?

—Tira, hainbestean –malokoak eskuaz lehortzen zituen Manuelek, begiak gehiago gorrituz–. Hator, familia aurkeztuko diat.»

Iritzia

Aztergai izan dugun obra, lexikoaren aldetik, irakurtzen erraza da, originala eta entretenigarria. Abiadura bizian irakurtzen da, eta ez da deskribapenetan nahasten. Gainera, irakurlearen interesa pizten duten eta gaurkotasuna duten zenbait gai eta egoera azaltzen dira, istorioan murgiltzen dutenak. Gure espazio eta denbora betetzen duten istorioak dira, baina inoiz gutxitan azaleratzen direnak. Garazi Kamiok estilo zuzena erabiltzen du, dramatismo berezirik gabe. Bizitzari buruzko epaia egiten du, bere betaurrekoen atzetik zorrozki ikusten duena kontatuz.

Liburu honekin pertsonaia desberdinen arazoak bizi, eta haien kezkek eta beldurrak ezagutuko ditugu. Idazleak pertsonok ditugun zenbait arazo eta dilema sozial jarri nahi ditu agerian, irakurleak haiei buruz pentsatu eta erreflexionatu dezan. “*Behin*

irakurri nuen etengabeko zoriontasunaren bila gabiltzala; baina egon, ez dagoela zorionez betetako bizitzarik” dio Garazi Kamiok. Hori da, hain zuzen ere, liburuarekin adierazi nahi diguna. Ipuinetako pertsonaiak ahal bezain zoriontsu izateko ahaleginak egiten dituzte, baina ez zaie gustatuko litzaieken bezain ondo ateratzen. Horrez gain, eguneroko txikikerien erretratua egin nahi izan du. Ingurura begiratzea besterik ez dugu, guri erabat arrotzak zaizkigun kontu eta istorioak ikusteko. Horietan oinarritu da Kamio liburua idazteko orduan. Ipuin bakoitzak irakurketa anitz ditu, irakurle bakoitzak modu batean interpreta dezakeelako mezua.

Irakurleak protagonistekin identifikatuko dira gehienetan. Liburuan pertsonaiak bidegurutze batera heltzen dira, eta orduan, nork egokien iruditzen zaion moduan jokatuko du. Gure bizitzako errealitatean ere, denok hartu behar izaten dugu bidegurutze horietako bat, eta erabakiak hartu beharrea aurkitzen gara, onerako edo txarrerako. Batzuetan oso zaila izaten da aukera onena zein den igartzea. Liburuko protagonistei berdin gertatzen zaie. Arazoak sortzen zaizkie eta konpondu egin nahi dituzte, gutako edonork geure bizitzetan bezala. Batzuetan, ordea, arazoak konpontzea ez da hain erraza izaten. *Panenka* ipuinarekin erlazionatuz, penaltiz beteriko bizitza dela gurea esan daiteke, guk ederki ikusi nola sartzan dizkigun golak geldo-geldo, baina baloia geldiarazteko ezinean gaudela. Liburuak bizitzarekin duen antzekotasun horregatik, erraza egiten zaigu pertsonaien azalean sartzea.

Liburuan pertsonen arteko harremanak dira indar gehien duten gaiak. Harreman hauek kaltetuta agertzen dira batzuetan, pertsonaia batzuk ez dutelako besteen egoera ulertzen. Hortik atera daiteke, hain zuzen ere, liburuaren izenburuaren zentzua: Beste norbaiten zapatak. Izan ere, arazo eta eztabaida asko konponduko genituzke besteen zapatak jantzi eta haien ikuspegia ulertzen saiatuko bagina. Bakoitzak bererari eusten dio maiz, ondokoari erreparatu gabe. Gizabanakoa bere esperientzia zein bizipenetik abiatzen da egoera bat analizatzen hasten denean. Baina batzuetan, beharrezkoa da zeurea den ikuspuntu hori alde batera uztea, besteena ulertu ahal izateko. Garazi Kamioren ustez, literatura bizitza prisma desberdinetik ikusteko gailua da, eta inguruan dugun horri beste modu batera erreparatzeko aukera ematen digu.

Liburuko ipuin guztiek daukate aipatu beharreko zer edo zer. *Gerizpeko panpinak*, adibidez, amaierako sorpresa guztiz ezustekoa du. Ipuin horretan bizitzaren bidearen saihezbideak agertzen dira. Guztiok izan dugu inoiz horietakoren bat hartzeko tentazioa, eta askok zeharkatu izan du marra inoiz, gehienok bidera itzuliz, baina saihezbide hartan ikusitakoa memorian geratuz; protagonistari gertatzen zaion moduan. *Nessun Dorma* ipuinean, berriz, bikotearen elkarrizketa zati bat azpimarratuko nuke: Mariak: “*Dibortzioa eskatuko nuke; orduan jakingo zenuke zer den bakarrik egotea*” eta Juanek “*Dibortzioa? Non saltzen dute? Dena itxita izango duzu honezkero*” (39-40.or.). Azken finean, menpekotasun bizitzaren metafora da. *Panenka*, bere aldetik, umeak hezteko rolen inguruko hausnarra da, baita belaunaldien arteko hezteko moduaren ezberdintasunena ere bai. Baina hausnarketa hori absurdoarekin jolastuz egiten du.

Lehen esan bezala, ulertzen erraza den liburua da. Sentimenduen eta iraganaren adierazpen anitz daudenez, ez da zaila pertsonaiak inguratzen dituzten eta haiek bizitzen dituzten egoerak imajinatzea. Horrela, erraza da pertsonaiei gauzak egitera bultzatzen dituen zergatiak ulertzea. Hala ere, bizitzako zenbait alderdi sakon jorratzen dira, heldutasun maila jakin bat eskatzen dutenak. Hori dela eta, ez zaio 16 urtetik beherako bati gomendatzen, liburua bere osotasunean ulertuko ez lukeelako.

Laburbilduz, liburua osatzen duten ipuinak irakurterrazak dira, gustura eta jakin-minez irensten diren horietakoak; eta horietako bakoitza irakurri ostean, zapore berezi batekin geldituko da irakurlea.

Bibliografia

Beste norbaiten zapatak, Garazi Kamio. Elkar.

Elhuyar hiztegia, Askoren artean. Elhuyar.

Webgrafia

<http://postdata.elkar.com/es/tag/garazi-kamio/>

<http://www.euskara.euskadi.net>

http://eu.wikipedia.org/wiki/Eider_Rodriguez

<http://www.uberan.org/?gatzetan-gordeak/elkarrizketak/item/garazi-kamiori-elkarrizketa>

<http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2014/11/13/ocio-y-cultura/gaur-egun-geure-buruari-bizkarra-ematera-iritsi-gara>

http://eu.wikipedia.org/wiki/Garazi_Kamio

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=870>